

# Gizajalea elikatzeaz

**B**ekatua, errua eta zigorraren gurpil-zoroa jasangaitza bihurtu zait. Ez gara tontoak, ezta bereziki berekoiak ere. Jendartea ez da inutila, eta ez gara ardiak. Morala, bandera handitan goraki altxatzen denean, sotoko itsuskeriak gordetze-ko baliatzen da. Hau aspaldian ikasia dugu. Moralaren izenean, harakin sena dutenek xamar zuria janzten dute, odolaren arrastoak ezin baitituzte eskuetatik kendu ere. Lady Macbethen eskuak ez ziren zuritu Shakespearearen antzezlanean; ez da kasualitate bat, ez da metafora bat. Sarraskiak, egilearen eskuak markatzen ditu, tatuaje batek egin lezakeen bezala.

Arazoak edo etorkizuna bera ere gurpil horretatik ateratzeko premia handia dugu, ez badugu amildegira erori nahi behintzat.



**LAUHAZKA**  
Ximun Fuchs

Handi-mandien gose amaiezina itoko gaitu bestela. Zeren, adibideak hartzearen: Zaldibarko krak handi horrek zer aldatu du sakonean? Eta pandemia izugarri honek? Kontsumo eredua aldatu da? Elkarbizitzarako apustuak neurritz hartu dira? Erabaki larriak biztanle eta tokiko eragileekin partekatu dira?

Egunerokotasunean, herri bezala, nahitaezkoak diren hainbat neurri pairatzen ditugu, eta ulergaitzak diren beste hainbat. Baina prestutasuna eta adeitasuna erakutsi dugula begi bistakoa

dela uste dut. Eta ez dut ulertzen horren aurrean beraien burua Jainkotzat hartzen duten hainbat kargudunen erakuskeria. Erakuskeriak mugak ukan behar lituzke,

ez? Diskurtsoan umiltasun zerbaiten ezinbestekotasuna agerikoa zela uste nuen, baina okerengoan.



Frantziako Poliziaren kontrola, Hendaian. GUILLAUME FAUVEAU

Beste adibide bat hartzearen, Iparraldean turismo intentsiboaz eta militar furguoz bete zaizkigu karririk, baina ezin gara elkarrekin bildu ikuskizun bat partekatze, ikastolen sustengatzeko, ihauleriak ospatzeko... Ez. Hemen, ezer ez da aldatu. Sohütako biztanle bat edo paristar bat berdin-berdin tratatuak dira, ezpada bi arlotan: dirua eta kultura. Ze-

ren frantses diruduna baldin bazara, lasai. Etor zintezke oportetan Donibane Lohizunera talde handian, eta nahi bezainbeste film ikus ditzakezu edozein plataformatan zure ama hizkuntzan, zure kezak, pentsaerak eta burutik zein bihotzetik pasatzen zaizkizun guziak adierazteko edo sendatzeko. Baina euskalduna bazara, edo beltza, eta txiroya gainera, zerbitzari geratuko zara. Izan zaitez zarena. Munduan zerbitzari sortu bazara, ez da munduaren parte izateko. Inork ez zaitu entzungo, eta zure lurra, pentsaera eta gorputza ez da izango kontsumorako beste baliabide bat baizik.

Horrenbeste iraun eta jasan izanak harrizten nau. Antzerkitik ikusita, badakit diskurtso moralistek eta mozorroek (epailek edo fiskalen xamarrak, polizia jantziak, hautetsi tattarrak...) asko eragiten dutela, baina ez dut uste hau denik gakoa. Uste dut gure herri honetan askotan ozen hitz egin arren, ez dugula aski sinisten gudan. Menpekotasuna oso barneratua dugu, eta askotan ausardia handiz jokatu badugu ere, bestetan, onargaitza irentsi dugu, pazientzia handiz. Eta pandemiak fenomeno hau okertu du erabat: arditegira goaz, otsoaren artzain mozorro oso agerian egon arren.

Jakin badakigu gauzek ezin dutela horrela iraun, eta hala ere, gizarte modeloa ez da ezbaian jartzen. Gutxi falta zaigu gure eredu propioak eta lekuko aterabideak martxan jartzeko.

Baina horretarako gure gaitasunean, irudimenean eta aberastasunean sinistu eta apustu egin behar genuke, gehiago behintzat, ezpada erabat. Mundu hau amildegira doa, bakarrik, eta gizajalea elikatu ordez, saiakera-aren ausardia jorratzen ahal genuke. Pixkanaka, urratsez urrats, harriz harri, elkarlan eta kooperazioan gauza asko egiten eta asmatzen dira. Hortik gatzoz, hortik xutik mantendu gara, bizirik, eta hortxe dugu giltza: duda eta saikeraren ausardia. Horrela sortu ziren eskolak, gaueko kurtsoak, antzezlanak, dantzak, abestiak, bertsoak... Eskuz esku eta ahoz aho, uretzatu dugu gure funtsezko aberastasuna: euskara eta euskal komunitatea. Izurrite honetatik ere onik aterako gara, bai, baina elkarrekin zeharkako bideak hartzen baditugu. Gure sareak sortzen eta sendotzen baditugu, eta gurean sinisten badugu, hau ez da kargudunen eremua, bakoitzaren ardurua da, eta ardurara hau besteengan uzteak gure desagertze hurbila onartzea dakar.

Aste honetan, Baxe Nafarroako eskolekin egingo dugu lan, antzerki, euskaraz, eta giro jostarian. Nire haurtzaroran, hau ezinezkoa zen. Ez dut ahazten aurrera egin dugula. Askok baina ez nuke atzera egin nahi, zeren arraunean, antzerkian, edo bizian, atzera egitean hondoratzen gara. Xutik irautea hautu bat da, etzatea bezainbat. Itxoi-ten gelditzea beste bat.

**Jakin<sup>eus</sup> 242**

herria kultura hizkuntza urtarrila-otsaila  
2021

**Pilare Baraiazarri**  
elkarrizketa

MIREN RUBIO ITURRIA

**GAIAK**

**Ihesa zilegi balitz: Xabier Lete eta trantsizioko poetikak**

ALEXANDER GURRUTXAGA MUXIKA

**EGUNEN GURPILEAN**

MAIALEN AKIZU BIDEKAIN

JAIME ALTUNA RAMIREZ

IÑIGO MARTINEZ PEÑA

IZAN  
ZAITEZ  
JAKINKIDE

Martin Ugalde Kultur Perkeak  
Gudaren etorbidea, 29  
20140 ANECOAIN  
Tel. 943 21 80 92  
jakin@jakin.eus  
www.jakin.eus

